

LASARTE – ORIAKO MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO PLANA

————— *Udalerriko mugikortasunari* —————
buruzko galdetegia

————— **MUGIKORTASUNA OINEZ** —————

1. Existitzen dira udalerrian espazio eta ibilbide eroso, seguru eta atseginak oinezkoen desplazamenduak burutzeko?

2. Irisgarritasun legearen irizpideak betetzen dira udalerrian? Ezgaitasunen bat duten pertsonen desplazamenduak modu seguruan egiteko egokituta dago udalerria (espaloien beharrez, soinudun semaforoak, etab.)? Alderdi horretan defizita duen punturen bat?

3. Zure ustez, udalerrian igogailuak jartzea irtenbide aproposa izan daiteke udalerrin barruan oinezkoen desplazamenduen baldintzak hobetzeko?

4. Oinez desplazamenduak egiteko ibilbide-sarerik badago udalerrian? Erosotasun eta segurtasun estandarrak betetzen ditu?

5. Seguruak al dira neska-mutilek eskolara joateko egiten dituzten eskola-ibilbideak?

6. Oinezkoen pasabideak ondo seinaleztatuta daudela eta argiztapen ona dutela uste duzu?

7. Oinezkoen ikuspegitik hobetu behar den udalerriko eremu jakin bat identifikatzen duzu?

———— **MUGIKORTASUNA BIZIKLETAN** —————

8. Nola baloratzen duzu udalerriko bizikleta-ibilbideen sarea? udalerriko bidaiak erakartzen dituzten zentroekin lotuta al dago sare hori? (kiroldegia, eskolak, Euskotren, etab.)?

9. Udalerrian badago bizikletentzako aparkaleku nahikorik? Ondo kokatuta daude aparkaleku hauek erakarpen-zentroetatik hurbil?

10. Lasarte-Orian bizikletaz eroso eta seguru ibili daiteke?

11. Bidegorriak egokituta daudela eta haurrak ere erabiltzeko seguruak direla uste duzu?

12. Seinale bertikalen egoera egokia da bidegorriaren ibilbide osoan?

13. Gauzez egiten diren desplazamenduetan, bidegorriaren argitasuna nahikoa dela pentsatzen duzu edo argi artifizialik ez izateak segurtasun-eza areagotzen duela uste duzu?

14. Bizikletaren ikuspegitik hobetu behar den udalerriko eremu jakin bat identifikatu

———— **MUGIKORTASUNA GARRAIO PUBLIKOAN** —————

15. Nola baloratzen duzu udalerriko garraio publikoa, autobusa zein trena? Nahikoa iruditzen zaizkizu maiztasunak? Garraio publikoan, inguruko herriekiko konexioan edo maiztasunean hobekuntzaren bat ezarriko zenuke?

16. Nola baloratzen duzu hiri-autobusaren zerbitzua? Zuzena iruditzen zaizkizu ibilbidea eta maiztasuna?

17. Zure ustez, hiriko autobus zerbitzu horrek gaur egun eremu gehiagori eman beharko lioke estaldura?

18. Zure ustez, autobus sareak konexio ona du beste garraiobideekin?

19. Lasarte-Oriako garraio publikoa behar bezala egokituta dago mugikortasun murriztua duten pertsonentzat edo ezgaitasun fisikoren bat dutenentzat ibilgailuetan nahiz geralekuetan?

20. Zein dira garraio publikoan mugitzeko arrazoi nagusiak?

21. Zein dira garraio publikoa ez erabiltzeko arrazoi nagusiak?

22. Idatzi hemen udalerriko garraio publikoaren zerbitzua hobetzeko iradokizunen bat

———— **MUGIKORTASUNA IBILGAILU PRIBATUAN** —————

23. Lasarte-Oria ibilgailu pribatuan mugitzeko udalerrri eroso delako uste duzue? Zein dira udalerrri barruko zirkulazioan hobekuntza orokorrak lortzeko aldaketak jasoko behar dituzten puntu nagusiak?

24. Elkarguneetan argi eta zehatz seinalizatuta dago pasatzeko lehentasuna?

25. Zein dira ibilgailu pribatuan mugitzeko arrazoi nagusiak?

26. Udalerrian aparkatzeko diziplinarik ez dagoela uste duzue? Udalerriko eremu bereziren batean?

27. Nola baloratzen duzu udalerriko aparkaleku kopurua? Nahiko plaza iruditzen zaizkizu? Tokiren batean plaza eskasia sumatzen duzu?

28. Zure ustez, aparkaleku publiko gehiago egon beharko litzateke Lasarten?

29. Zure ustez, hiriguneko eremu zehatz batean parkatze arautua (TAO) ezartzea aparkalekuaren egoera hobetzeko irtenbidea izan liteke?

30. Zure ustez, hirigunetik urrunago dauden aparkalekuak seguruak dira eta hirigunearekin ondo konektatuta daude aparkaleku horietatik hirigunera oinez joateko?

———— **DESPLAZAMENDU MODUEN ARTEKO BIZIKIDETZA** —————

31. Oinezkoen eta bizikleten arteko bizikidetza arazorik badago? Ba al dago bizikidetza arazorik mugikortasun pertsonaleko ibilgailuekin (patineteak, etab.)?

32. Ba al dago gizalegerik ibilgailu motordunen eta oinezkoen artean udalerrian? Eta ibilgailu motordunen eta bizikleten artean?

33. Lasarte-Oriako gidariek zirkulazio arauak maila egoki batean errespetatzen dituztela uste duzu? Zirkulazioari buruzko araudia eta ordenantza betearazteko kontrol maila handitu behar dela uste duzu?

34. Zure ustez, gaizki aparkatutako autoek oztopatu egiten dute galtzada oinezkoen desplazamenduetan?

35. Zehaztu udalerrian lekuren bat non, desplazamenduak egiteko moduen artean bizikidetza arazoak ematen dira.

36.- Erantsi hemen Lasarte-Oriako Mugikortasun Jasangarrirako Planean aztertu beharreko eduki bereziren bati buruzko edozein iradokizun (ingurumena, zarata, abiadurak, etab.).